

## INFOGRAFIA: LAN-EREMUAN KOMUNIKAZIO INKLUSIBOA TXERTATZEKO GAKOAK

**1. Maskulino generikoa saihestu**  
Erabili termino neutroak.



**Mezuak pertsonalizatu**  
Mezua hartzaile ezberdinei egokitu.

**2.**

**3. Bikoizketen erabilera mugatu**  
Saihestu barren gehiegizko erabilera (a/o).



**Erabili formula ezberdinak, txandaka**  
Generoen ordena txandaka erabili.

**4.**

**5. Hitz egin testuinguruaz**  
Esan "banda", "estudioa" edo "produkzio-etxea", "gu" edo "denok" esan beharrean, arreta taldean jartzeko.



**Aldatu esaldien sintesia**  
Erabili "zu" bezalako norabanako tratamenduak,  
"zuek" bezalako pluralen ordez.

**6.**

**7. Egin irudien erabilera ez sexista**  
Musika arloan dagoen genero-aniztasuna erakutsi.



**Irudikapenetan estereotipoak hautsi**  
Aukeratu genero-estereotipo tradizionalei aurre egiten dieten argazkiak.

**8.**

**9. Hizkuntzaren botere eraldatzailearen kontzientzia hartu**  
Aintzat hartu hizkuntza inklusiboak musika arloan lan-giro anitza eta bidezkoa sustatzeko duen ahalmena.



**Gako hauekin, hizkuntza inklusiboa eraikitzen dugu gure lan-ingurunean!**

# INFOGRAFIA: LAN-EREMUAN HIZKUNTZA INKLUSIBOA LANTZEKO GIDA

*Errealitatea aldatzen bada, hura izendatzeko modua aldatu behar da.*

## ZERGATIK DA GARRANTZITSUA HIZKUNTZA INKLUSIBOA MUSIKA INDUSTRIAN?



- Errespetuzko eta berdintasunezko ingurunea sortzen laguntzen du: musikaren industria osatzen duten pertsona guztiek tratu zuzena eta errespetuzkoa merezi dute.
- Aniztasuna eta gizarteratzea bultzatzen ditu: identitate- eta talentu-aniztasun aberatsa islatzen du.



## NOLA APLIKATU HIZKUNTZA INKLUSIBOA MUSIKAN?

- Hitz neutroak erabili: lantaldea, langileen orde.
- "Taldea" edo "banda" erabili, perstonak izendatu eta generoka banatu beharrean.
- Genero-identitateen aniztasunaz jabetu.



## HIZKUNTZA INKLUSIBOA INPLEMENTATZEKO TRESNAK

- Hitz neutro eta ez-sexisten zerrenda
- Esaldi inklusiboak sortzeko egituren adibideak.
- Abestien eta adierazpenen letrak berrikusteko eta egokitzeko gida.



## HIZKUNTZA INKLUSIBOAREN INPAKTUA POSITIBOA

- Lankidetzan oinarritutako lan-giroa sustatzen du.
- Ongizatea, berdintasuna eta lanarekiko gogobetetasuna lortzen laguntzen du.

## ALDAKETA EZARTZEKO AHOLKU PRAKTIKOAK



- Gaitu eta sensibilizatu zure taldea: hizkuntza inklusiboari buruzko tailerrak antolatu.
- Txertatu hizkuntza inklusiboa zure letra eta politiketan: zure sorkuntza-eta enpresa-prozesuaren funtsezko zati bat bihurtu.
- Etengabeko hobekuntza sustatu: entzun zure lankideak eta zure entzuleak eta haien ekarpenak kontuan izan.

**Hizkuntzaren botereaz baliatuz, zure lantokia espazio inklusiboa bihurtu!**



# INFOGRAFIA: "BERDINTASUNERAKO URRATSAK"

1.

**Garatu eta zabaldu zure erakundearen Berdintasun Plana, musikan ingurune inklusiboa sustatzeko:** zure disko-etxerako, grabazio-estudiorako edo bira-konpainiarako genero-berdintasuna lantzeko plan berezi bat sortu eta entitateko pertsona guztiei argi eta garbi ezagutzera eman.



2.

**Hizkera ez-sexista erabili musikarekin zerikusia duten komunikazio eta argitalpen guztietan:** mezu elektronikoetan, prentsa-oharretan eta abesti-letretan hizkuntza inklusioa erabiltzen dela bermatu.



3.

**Generoagatiko diskriminazioak eragindako gatazkak begiratu eta konpondu, eszenatoki gainean eta atzean bidezko giroa sustatzeko:** genero diskriminazioarekin zerikusia duten gatazkak kudeatzeko eta konpontzeko sistema eraginkorrak ezarri eta pertsona guztiak entzun eta baloratzen direla bermatu.



4.

**Lan-giro integratzailea sustatzen duten politikak ezarri:** generoari eta aniztasunari buruzko sentsibilizazio-tailerrak eta antzeko ekimenak bultzatu, eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako kultura sustatu.



5.

**Artistentzat eta laguntzaileentzat lana eta familia bateratzea ahalbidetzen duten lan ereduak garatu:** ordutegi malguak, bira egokituak eta beste erraztasun batzuk eskaini, langile guztiek euren musika-ibilbidea eta euren norbanako beharrak orekatu ahal izateko.



6.

**Ekintza positiboak martxan jarri musika industriako lanpostu eta maila guztietan baldintza-berdintasuna bermatzeko:** talentuen aukeraketan eta lan-ibilbidean aurrera egiteko aukeretan, pertsona guztientzako aukera-berdintasuna ziurtatzeko neurriak hartu.



7.

**Lanpostuen diseinuan egon daitezkeen genero-oztopoak aztertu eta ezabatu eta aukera-berdintasuna ziurtatzeko neurriak txertatu bai grabaketa estudioetan, bai biretan, bai beste edozein ekitaldian:** aztertu nola egituratzen diren rolak eta erantzukizunak eta genero identitatean oinarritutako diskriminaziorik ez dagoela bermatu.



8.

**Banda, ekipo tekniko eta produkzio arloko langileen kontratazio-prozesuetan edozein diskriminazioa ezabatu:** ziurtatu zure hautaketa-prozesuak zuzenak eta gardenak direla, zure musika-antolakundeko arlo guztietan genero eta sexu aniztasuna sustatuz.



**Berdintasun eta aniztasun handiagoko lantoki baterako bidean, aurrera!**

# INFOGRAFIA: "JAZARPENAREKIKO ZERO TOLERANTZIA"

Laneko sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena ulertu, prebenitu eta aintzat hartu.

## SEXU-JAZARPENA

Sexu-jazarpentzat hartuko da pertsona baten duintasunaren aurka jotzea helburu edo ondorio duen edozein sexuagatiko jokabide, ahozkoa edo fisikoa. Bereziki, larderiazko inguru laidogarria edo iraingarria bilakarazten badu..Giro beldurgarri, degradatzaile edo iraingarrian agertzen da. Edozein gizabanakori eragin diezaioke, baina emakumeak dira biktima nagusiak, eta jazarle gehienak gizonak dira.

## SEXUAREN ARABERAKO JAZARPENA LAN-INGURUNEAN



Sexuagatiko jazarpentzat hartuko da pertsona baten duintasunaren aurka jotzea eta larderiazko inguru laidogarria edo iraingarria bilakaraztea helburu duen sexuaren arabeko edozein jokabide. Sexu-jazarpentzak bezala, emakumeei eragiten die batez ere lan-ingurunean.



## GARRANTZITSUA

Sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena, haurdunaldiarekin, amatasunarekin, aitatasunarekin edo beste familia-zaintza batzuen gaineko ardurarekin zerikusia duen tratu txarrarekin batera, bereizkeriazkotzat jotzen dira eta berariaz debekatuta daude. Hau Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta aplikatu beharreko beste araudi batzuetan islatzen da.

## NOLA IDENTIFIKATU MUSIKA ARLOAN?

ADI...

- Entseguetan, biretan edo grabaketa estudioan, nahi ez dituzun hurbilketa edo kontaktu fisikoak jasotzen badituzu.
- Begirada lizunak, sexu-konnotazioa duten keinuak, hala nola, txistuak backstagean eta emanaldietan, ikusten badituzu.
- Sare sozialen bidez sexu-eduki esplizitua edo iradokitzailea duten eta eskatu edo nahi ez dituzun mezuak jasotzen badituzu.
- Lan-eremuan zure baimenik ez duten iruzkin, intsinuazio edo txiste sexualak jasotzen badituzu.
- Sexu harremanak eskatzen badizkizute musika industrian aukerak lortzeko baldintza gisa.
- Emakumeek eszenatokian duten presentziari buruzko mespretxusko iruzkinak edo zure generoan oinarritutako gaitasun profesionalari buruzko zalantzak entzuten badituzu.

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRETARAKO TELEFONOAK:

**Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko 24 orduko arreta-zerbitzua (orientazioa eta baliabideak):**  
900 840 111

**Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (laguntza psikologikoa):**  
900 180 414  
900 100 928  
900 400 028

**EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA**  
**Bereizkeria-kasuetarako defentsa-zerbitzua:**  
945 016 550